

BALIOZKO PROPOSAMENA

Atal honetan gure zerbitzua azaldu eta esplikatu dugu. Hasteko geure burua aurkeztu dugu. Ondoren gure zerbitzua zein den, gizartean ikusi ditugun beharrak eta zerbitzua sortzeko arrazoiak emango ditugu. Azkenik, gure zerbitzua nola izango den eta honen funtzionamendua azalduko dugu.

Gaur egun, munduaren egoera pil-pilean dagoen gaietako bat bihurtu da. Azken urteetako ikerketek frogatu duten bezala, gure planeta arriskuan dago, produktu ezberdinen erabilera desegokien ondorioz gehienbat. Hori dela eta, proiektu bat martxan jartzeko asmoa dugu.

Gure helburua plastiko eta edozein zakarren erabilera egokia zein den erakustea da, birziklapena ohitura bat bihurtzeko. Horretarako, ume zein helduekin harremanetan arituko gara, lehenik eta behin gaur egun gure planeta jasaten ari den egoeraz jabetzeko. Hori lortu ahal izateko, antolatutako hainbat ekintza eramango ditugu aurrera. Ekintzak astelehenetik ostiralera jarri ditugu eta geure zerbitzua Euskal Herriko edozein udaletxek kontratatu dezake, horrela, astero herri ezberdin batean izango gara.

Gure plangintzaz gain, hileko azken larunbatean ekintza zein ibilaldi bat antolatzeko asmoa ere dugu, euskal herrian barrena. Bertara edozein etor daiteke, horrela, ingurumena garbitzeaz gain harreman berriak egiteko aukera bikaina ere izan daiteke.

Hau da guk antolatutako plangintza:

Astelehena: Hainbat joko aukeratu ditugu haurren baldintzetara prestatuak. Adibidez, birziklapenaren bingoa:

Idea honekin, haurrek birziklatzen ikasiko dute, joko bat izango balitz bezala. Elementu bakoitza bingoaren bidez zein zakarretara bota behar duten ikastea nahi dugu. Heldu batek edo guk pertsonalki ausaz dauden elementuak aipatu beharko ditugu. Lehenik eta behin, lerro bat amaitzen duen haurrak justifikatu beharko du elementu guztiak osatu dituela eta, behar bezala esan beharko du zein edukiontzitan joan behar duen bakoitzak. Huts eginez gero, jokoak aurrera jarraituko du. Haur batek bingo abesten duenean eta elementu guztiak bere birziklatze-lekuan behar bezala kokatzen ditunean amaituko da .

Asteartea: Bigarren eguna umeei zuzenduta egongo da. Horretarako, bakoitzak etxeko zakarrak ekartzea pentsatu dugu, lehenik eta behin gauza bakoitza zein ontzitarra bota behar den irakasteko. Hau menperatu ondoren, zakar hauekin eskulanak egingo ditugu: jostailuak egin, plastikozko botiletan landareak landatu...

Asteazkena: Egun honetan ere eskulanak eta tailerrak egiten arituko gara, baina helduekin. Adibidez, saskibaloiko saskiak egin ditzakegu. Eta, hau bukatu ostean, helduek haien kirol abileziak erakuts ditzakete:

Paperontzi eta kanasta batzuk sortu behar dira, eta haurrak osagaien arabera aukeratu behar dute. Kuboei buruzko sare batzuk nahikoa izango dira birziklapena haientzat jolas bihurtzeko eta gainera modu dibertigarri bat da.

Osteguna: Ostegunak egun "lasaienak" izango dira, izan ere, umeei ingurunearekin zerikusia duen liburu bat irakurtzea pentsatu dugu. Ondoren, gaiari buruzko hipotesi zein ondorioak aterako ditugu. Horrela, gaur egungo egoeraz jabetzen eta kontzientziatzen joango dira.

Ostirala: Egun honi "kidetzen eguna" izena jarri diogu. Izan ere, ume eta helduak elkarrekin ibiliko dira lanean, sukaldaritza txapelketan hain zuzen ere:

Taldeka osagaiak erosi beharko dituzte ondoren jaki bat sukaldatzeko, eta hau bukatu ostean zakarrak ondo ontziratzea du helburu.

Laburbilduz, gure helburu nagusia, plastikoaren eta zaborraren manipulazio egokia egiten irakastea da, egin dugun plangintzaren laguntzarekin. Horretarako, astean zehar ekintza batzuk aurrera eramango ditugu, egun bakoitzean adinaren arabera bideratutakoak. Gainera, gure inguruan ez dago horrelako zerbitzurik martxan, horregatik behar izanez gero guregana jo beharko lukete bezeroek.

